

# -(K)i hiztegia, eta hiztegiak harantzago\*

## *The suffix -ki in the lexicon and beyond*

Beatriz Fernández

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

### Abstract

*A morpheme -(k)i invariably precedes dative clitics in Basque verbal inflection. This morpheme has been analyzed as an applicative marker (Elordieta 2001, Fernández 2012, 2014b among others). In this paper, I will revisit this hypothesis, providing arguments for and against it. It will be shown that, although attractive, the applicative analysis of -(k)i presents some typological problems that can be alternatively solved by assuming -(k)i to be a preposition, as claimed by Trask (1981). Moreover, -(k)i can also appear in non-finite verbal forms of verbs such as atxiki, eutsi ‘hold on’ or jarraiki ‘follow’. Regarding those instances, I will propose -(k)i to be a lexicalized preposition responsible for dative selection. This instance of the applicative preposition is claimed to differ from the quirky -(k)i attested in verbs like eduki ‘(possessive) have’ and jakin ‘know’. Contrary to dative-selecting verbs like jarraiki ‘follow’, neither eduki ‘(possessive) have’ nor jakin ‘know’ select any datives. However, these verbs have been historically attested in both synthetic and analytic ditransitive forms, i.e. forms including datives, and have been also preserved in this configuration in western varieties (Gaminde 2004). In those instances, dative clitics are not introduced by the quirky -(k)i, but by the applicative preposition -(k)i.*

### Laburpena

*-(K)i morfemari aplikatiboa iritzi izan zaio lan batzuetan (Elordieta 2001, Fernández 2012, 2014b beste batzuen artean). Lan honetan, aplikatiboaren hipotesia berrikusiko*

---

\* Lan honek “-(K)i” eta “-(K)i eta -ra” izenburuko lanei segida ematen die. Bi morfema hauen inguruko eztabaidan argigarriak izan dira zenbait gogaide kuttunen iritzi, iradokizun eta zuzenketak. Horregatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Beñat Oihartzabal, Patxi Goenaga, Jon Ortiz de Urbina, Richard S. Kayne, Ibon Sarasola, Ane Berro, Ane Odria eta José Ignacio Hualderi. Ibon Sarasolari zor dizkior, bestalde, lan honetako zenbait adibide klasikoren inguruko argibideak eta estilo aldetiko zuzenketak. Lanaren erantzukizuna, ordea, onerako zein txarrerako, nirea da bakarrik. Emaizta hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez. Gainerakoan, lan hau ondoko instituzio eta ikerketa proiektuek babestu dute: Eusko Jaurlaritzak (IT665-13); Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak (FFI2011-26906) eta Frantziako Agence Nationale de la Recherche delakoak (RDKR 2012-16 eta TSABL (2008-2011: ANR 07 CORP 033)).

*dut, berez izan ditzakeen zenbait eragozpen tipologiko eztabaidatuz, eta Traski (1981) jarraituz, beste hipotesi berri bat jorratuko dut, hots, -(k)i preposizio bat dela. Bestalde, aditz inflexioan ez, ez bada zenbait aditzen partizipioetan ageri diren beste bi -(k)i morfema ere aztertuko ditut: bat atxiki, eutsi eta jarraiki aditzetan ageri da eta zerikusi estua du -(k)i aplikatibo/preposizioarekin, zeren konfigurazio datibodunetan agertzen da nagusiki, hau da, egiturara datibo bat gaineratuz eta ondorioz, datibo komunztadura ere sartuz. -(K)i hori lexikalizaturik dago, eta horrek azal dezake aditz hauek datiboa hautatzea. Aldiz, bada beste -(k)i izun bat, aditzaren oinarri morfologikoan agertu arren, datibo kasuaren eta komunztaduraren ezarketarekin batera zerikusirik ez duena. -(K)i izunekoak dira eduki zein jakin aditzak, zeinak nagusiki iragankorrak diren eta testu historikoetan, salbuespenak salbuespen (Axular edo Pouvreau adibidez), konfigurazio datibodunetan nekez aurki daitezkeen, batez ere forma sintetikoetan. Alabaina, salbuespenak badira. Horiexek zein mendebaldeko hizkera batzuetan (Gaminde 2004) oraindik ere jaso daitezkeen daukatzut edo dakitzut bezalako forma datibodunak aztertuko ditut lan honetan.*

## 0. Hastapenak

-(K)i morfemaz hitz egiten denean, nagusiki aditz inflexioarekin lotu izan da delako morfema. Izan ere, -(k)i, Traski (1977) jarraituz *datibo ikurra* (ingelesez *dativ flag*) deitu izan duguna, aditz inflexioaren barruan jasotzen da, datibo komunztadura hizkiaren ezkerretara. Morfema horrek eta bere izaera morfologikoak batez ere hizkuntzalari diakroniazaleen arreta bereganatu dute urtetan, eta Trasken zenbait lanez gain —(1977) eta (1982) besteren artean—, Lafonenak (1980 [1944], 1999 [1961]) ere badira arreta horren lekuko bikainak. Sintaktikoki, berriz, morfema aplikatibotzat jo dute zenbait hizkuntzalarik (Elordieta 2001, Rezac 2006, Fernández 2012, 2014b). Aplikatiboak argumentuak perpausera gaineratzeko mekanismoak dira (Polinsky 2013), eta -(k)i morfemak horixe bera egiten duela dirudi, hots, datibo argumentuak perpausera gaineratu. Ormazabal eta Romero (1988), Albizu (2001), Arregi (2003) eta Arregi eta Ormazabal (2003) izan dira beste batzuen artean Bakerrri (1988) jarraituz, hipotesi hori euskarara ekarri duten hizkuntzalariai.

Lan honetan, aplikatiboaren hipotesia berretsi egingo dut, nahiz eta hipotesi horrek badituen euskaraz eztabaidagarriak diren eragozpen tipologiko batzuk. Horiexk gauditu nahian, -(k)i aplikatiboa ez, ez bada preposizio bat delako hipotesia arakatu dut, Trasken (1981), aldeak alde, iradokitzen duen bezala.

Bestalde, hiztegi isuritako -(k)i morfema izango dut aztergai. -(K)i morfema hori zenbait aditzen partizipio eta gainerako forma jokatugabeetan agertzen da, adibidez, *atxiki, ekin, eutsi eta jarraiki* aditzetan, eta harremanetan jarri dute hizkuntzalari diakroniazale batzuek (Schuchardt 1972 [1893], Lafon 1980 [1944]) aditz inflexioan datibo komunztaduraren ezkerretara agertzen denekin. Bada, lan honetan proposatuko dudanez, hiztegi ale hauetan jasotzen den -(k)i hori sintaxiko morfema bera da, baina lexikalizaturik. Izan ere, aditz horiek guztiak duten ezaugarri komuna da datibo sintagmak ezinbestean hautatzea, eta itxura guztiaren arabera, datibo kasua aditz lexiko horien -(k)i iri zor zaio. Horregatik, inakusatibo datibodunen artean sailkatu dira *atxiki, ekin* eta *jarraiki* aditzak. Adibidez, *Euskal Herria euskarari atxikiko zaio* diogunean, argumentuetatik bat absolutiboz markaturik dago (*Euskal Herria*) eta datiboz markaturik bestea (*euskarari*). Horrelakoak dira konfigurazio inakusatibo

datibodunak. Bestalde, inergatibo datibodunen artean sailka daiteke *eutsi*. Esate baterako, *Euskal Herriak euskarari eutsiko dio* perpausean, bi argumentu daude, baina lehengo perpausean ez bezala, subjektuari ergatiboa ezarri zaio absolutiboaren orde (Euskal Herriak). Horregatik da inergatiboa. Horretaz aparte, ergatiboari datiboa (*euskarari*) gaineratu zaio, eta horri esker sortu da konfigurazio datiboduna —ikus xehetasunetarako, Etxepare 2003 edo Fernández eta Ortiz de Urbina 2010—. Nolanahi ere den, perpaus batean zein bestean, datiboa ageri da, eta horixe da, hain zuzen, azpimarratu beharrekoa: datiboa hautatzen dutela aipatutako aditzek. Bestalde, aditz horiek guztiek forma sintetikoak erakutsi dituzte inoiz hizkuntzaren historian, eta gaur egun ere, bakanak izan arren, hizkera jasoetan aurki daitezke euren erakusgarriak. Bada, oso litekeena da partizipio horietan agertzen den *-(k)i* lexikalizatu hori, adizki jokatu sintetikoetatik etorri izana. Bilakaera historikoaren norabidea zeinahi delarik ere, *-(k)i* lexikalizatuak datiboaren hautaketa zehazten du. Ondoren dator sintaxia eta sintaxian erabakiko da kasuaren zilegiztapena. Fernández eta Ortiz de Urbinak (2012) bi kasu zilegiztapen mekanismo proposatu dituzte, bat *-(k)i* aplikatibo/preposizioarekin lotzen dena, *atxiki* eta *jarraiki* bezalako aditzetan, eta beste bat *ekin* bezalako aditzetan, kasu lexikal batekin lotzen dena à la Woolford (2006). Ez dira hauek, jakina, mekanismo horietan parte hartzen duten aditz guztiak, ez bada aditz batzuen artean, *-(k)i* lexikalizatua erakusten dutenak.

Bestalde, badira euren partizipioan *-(k)i* morfema erakusten duten beste zenbait aditz, adibidez, *eduki*, *ukan* eta *jakin*. Schuchardtek (1972 [1893]) eta Lafonek (1980 [1944]) argi bereizi dituzte *eduki*, *ukan* eta beste zenbait aditz (*jalgi*, *jaurtiki*...), *atxiki* eta abarretatik, egile hauen ustez, *-(k)i* honek ez baitu zerikusirik datibo komunztadurarekin harremanetan dagoen *-(k)i* sintaktikoarekin. Honi dagokionez, bat egingo dut bi egileon ustearekin, *atxiki* eta abarrek ez bezala, *edukik*-eta ez baitute datiborik hautatzen (Euskaltzaindia 1987, 1993, Hualde 2003), eta nagusiki ez baitira konfigurazio datibodunetan agertzen, datibogabeetan baino. *-(K)i izuna* deituko diot horregatik. Lan honetan, hauetariko bi aditz aztertuko ditut bereziki, *eduki* eta *jakin*. Biak dira aditz iragankorrak, baina, bakanak izan arren, konfigurazio datibodunak ere badituzte, eta badira euren leku-kotasun idatziak, hala nola, Axularren *Geroko Aita batek bere semeari diadukon amorioa* edo Moguelen *Peru Abarkako Euskereari ezakio inok arrezkero etorrerarik* (Azkue 1969). Bestalde, mendebaldeko hizkera batzuek gorde dituzte beste eremu dialektaletan ia ezezagunak diren forma datibodunak bi aditzekin, eta *daukatzut* edo *dakitzut* bezalako formak sortzen dituzte gaur egungo hiztunek eurek ere (Gaminde 2007). Forma horiek, proposatuko dudanez, bi *-(k)i* morfema dituzte, bata oinarri morfologikoaren berezko morfema eta bestetik sintaxian indarrean dagoen *-(ts)i* aplikatibo/preposizioa, datibo argumentuak gaineratzeko aukera ematen duena, ohi duen bezala.

Lan hau ondoko atal hauetan banatuko dut. Lehen atalean, aditz inflexioan ageri den *-(k)i* morfemari buruz hitz egingo dut zertzelada orokor batzuk emanez. Bigarrenik, *-(k)i* hiztegian aztertuko dut, datiboa hautatzen duten aditz lexikoei (*atxiki*, *ekin*, *eutsi*, *ihardetsi* eta *jarraiki* aditzei) erreparatuz. Hirugarrenik, *-(k)i* aplikatiboaren hipotesia eta *-(k)i* preposizioarena arakatuko ditut xehetasunez. Laugarrenik, *-(k)i*, *eduki* eta *jakin* aditz lexikoak aztertuko ditut, bereziki (mendebaldeko) forma datibodunei begiratuz. Lanaren amaieran, ondorio nagusiak laburbilduko ditut.

### 1. *-(k)i* sintaxian

Lan honen atarikoan esan dudan bezala, *-(k)i* morfema aditz inflexioan datibo komunztaduraren ezkerretara ageri den morfemarekin identifikatu ohi dugu. Morfema hori orotarikoa da euskaraz: baldin eta adizkiak datibo komunztadura jasotzen badu, orduan beti eta salbuespenik gabe, *-(k)i* morfema dago bere ezkerretara. Edo beharbada, bestela adierazi beharko nuke, *-(k)i* morfema agertzeak baitakar datibo komunztadura bera ere agertzea, eta ez alderantziz. Beraz, (1a) gramatikala da, biak, *-(k)i* eta datibo komunztadura barnebiltzen dituelako; aldiz, (1b) eta (1c) ezgramatikalak dira, lehenak *-(k)i* jasotzen duelako datibo komunztadurarik gabe, eta bigarrenak kontrako arrazoiarengatik, hots, datibo komunztadura biltzeagatik, *-(k)i* izan gabe.

- |  |                                   |
|--|-----------------------------------|
| (1) a. d-a-tor-ki-o <sup>1</sup><br>DM-DM-etorri-KI-3sgDAT | b. *d-a-tor-ki<br>DM-DM-etorri-KI |
| c. *d-a-torr-o<br>DM-DM-etorri-KI-3sgDAT                   |                                   |

Diodan hau, ikuspuntu sinkroniko zein diakronikotik egin daitekeen baieztapena da, euskararen lehen testigantza idatzietatik jasotzen den gertaera bat baita hau.<sup>2</sup>

Bestalde, morfema horren agerpenak ez du mugarik adizkiaren beraren izaerari dagokionez: izan adizki sintetiko izan analitiko, izan adizki iragangaitz izan iragan-kor, delako morfema ageri da beti.

- |   |   |
|---|---|
| (2) a. d-a-tor-ki-o<br>DM-DM-etorri-KI-3sgDAT | b. d-a-kar-ki-o<br>DM-DM-ekarri-KI-3sgDAT |
| (3) a. z-a-i-o<br>DM-DM-(izan)-KI-3sgDAT      | b. d-i-zu-t<br>DM-(edun)-KI-3sgDAT        |

Azkenik, hizkeretara begira gaudela, ez dago honi dagokionez inolako aldea sintaktiko esanguraturik zeren hizkera guztiek jasotzen baitute delako morfema, diferezntzia morfologikoak gora behera.

- |   |   |
|---|---|
| (4) a. z-a-i-o<br>DM-DM-(izan)-KI-3sgDAT      | b. j-a-k-o<br>DM-DM-(izan)-KI-3sgDAT        |
| (5) a. d-i-zu-t<br>DM-(edun)-KI-3sgDAT        | b. d-eu-ts-(z)u-t<br>DM-DM-(izan)-KI-3sgDAT |
| (6) a. d-a-tor-ki-o<br>DM-DM-(izan)-KI-3sgDAT | b. j-a-tor-k-o<br>DM-DM-(izan)-KI-3sgDAT    |

<sup>1</sup> Lanean zehar ondoko laburdura hauek erabiliko ditut: ABS = absolutiboa; ALO = alokutiboa; bok = bokala; APL = aplikatiboa; ASP = aspektua; DAT = datiboa; DM = denbora/modua; ERG = ergatiboa; FAM = familiarra; IRGN = iragana; MAS = maskulinoa; P = preposizioa; pl = plurala; sg = singularra; 1-2-3 = lehen, bigarren eta hirugarren pertsona.

<sup>2</sup> Salbuespen historiko bakarra (1c)-ren erako zenbait adizkitan aurki daiteke. Horien inguruko eztabaida saihestuko dut oraingo honetan. Ikus xehetasunetarako, Lafon (1999 [1961]), eta bere ildotik Fernández (2012).

Diferentzia morfologiko horietako batzuk morfemaren beraren itxurari dagozkio: -(k)i hori izatez -ki, -i, -k, -tsi edo -ts gisa burutu baitaiteke morfologikoki. Esate batera, erdialdeko eta ekialdeko *zaio* adizkiaren mendebaldeko lagunak, hots, *jako* adizkiak -k du eta ez -i. Edo *dizut* adizkiaren mendebaldeko ordainak, hau da, *deutsut* adizkiak -ts du -i morfemaren orde, eta abar.<sup>3</sup> Dena dela, antzaldatze morfologiko hori ez da nahitaez hizkeratik hizkerara gertatzen den fenomeno, hizkera berean burutzapen bat baino gehiago izan baititzake delako morfemak —ikus (2) eta (3) adibideetako adizkiak, adibidez, -ki ez ezik, -i morfema ere jasotzen dituztenak hizkera berean—.

-(K)i morfema horri aplikatiboa iritzi izan zaio literaturan (Elordieta 2001, Rezac 2006, Fernández 2012, 2014b), 3. atalean aztertuko dugun bezala. Ordura bitartean, deitura horretaz baliatuko naiz delako morfema aipatzerakoan.

## 2. -(K)i hiztegia: -(k)i lexikalizatua vs. -(k)i izuna

Orain arte deskribatu dudana inflexiozko -(k)i morfemarekin batera, bi dira hiztegiari isuri diren -(k)i morfemak, bat -(k)i *lexikalizatua* deituko dudana, eta bestea -(k)i *izuna*. Lehenak zerikusi estua du (1) atalean aipatu dudana -(k)i sintaktikoarekin. *Atxiki*, *ekin*, *eutsi*, *ihardetsi* eta *jarraiki* bezalako aditzek -(k)i hori erakusten dute. Bigarrenak, -(k)i izunak, aldiz, ez du zerikusirik -(k)i sintaktikoarekin, eta bata bestetik bereizi izan dituzte baita hizkuntzalari diakroniazaleek, hala nola, Schuchardtek (1972 [1893]) eta Lafonek (1980 [1944]: 14-18). Lanaren amaieran aztertuko ditudan *eduki* eta *jakin* aditzek -(k)i izun hori dute, baina baita *iharduki*, *jaurtiki* iragan-korrek edo are gehiago, -gi<sup>4</sup> morfemako *jalgi* iragangaitzak ere, beste batzuen artean.

Printzipioz, ezaugarri batek biltzen ditu denak, hots, -(k)i morfema edo bere alomorfoetako bat, adibidez -k edo -tsi erakusteak. Bestalde, guztiak salbuespenik gabe aditzak dira, baina hortik aurrera, diferentziak nagusitzen dira. Lehenik eta behin, -(k)i lexikalizatuko aditz guztiek salbuespenik gabe izan dituzte inoiz adizki sintetikoak, kasuan kasuan, gaur egunera arte iraun dutenak.<sup>5</sup>

- (7) a. d-a-txe-ki-o (atxiki)  
DM-DM-atxeki-KI-3sgDAT
- b. h-a-ki-o (ekin)  
2FAM.ABS-DM-ekin-KI-3sgDAT

<sup>3</sup> *Jako* eta *jatorko* mendebaldeko adizkien hastapenean ageri den *j-* morfemak ere beste -i bat ere ez ote duen ezkututzen eztabaida genezake (*j < di*), baina oraingo honetan, ez dut eztabaidaren ildo hori jorratuko. Adizkiaren bigarren gunean ager daitekeen -i morfemarako, ikus Fernández (2014b) eta bertan jasotzen diren aipamenak.

<sup>4</sup> Lan honetan eta gaiarekin zerikusia duten nire beste azken bi lanetan, ez dut -gi morfemaren aipamenik egin. Itxura guztiaren arabera, -gi, -(k)i morfemaren beste burutzapen morfologikoetako bat da. Izango da halako batean -gi honetaz jarduteko aukera.

<sup>5</sup> Ez dut adizki sintetikoek buruzko xehetasunik emateko asmorik. Izatez, (7) adibideetako formen testigantzak aurki daitezke klasikoetan, baina oso bakanak dira gaur egun, eta klasikoetan bertan ere, paradigma sintetikoetan murriztasun nahikoa handiak dituzte, irakurleak ondo dakien bezala. Adibidez, *ihardetsi* aipatu dut -(ts)i duen aditza delako, baina forma sintetiko bakanen bat baino ez du historikoki erakutsi: Leizarragaren aginterazko *ihardestazue* (Lafon (1980 [1944]: 337-338). OEhk (IX: 87) bere aldetik, Leizarragarena ez ezik, Oihenarten *zinhardetsana* ere aipatzen du. Hortik aurrera, batere ez.

- c. h-a-u-ts-o (eutsi)  
2FAM.ABS-DM-eutsi-KI-3sgDAT
- d. b-e-rra-i-ki-o (jarraiki)  
DM-DM-jarraiki-KI-3sgDAT

Bigarrenik, berebiziko garrantzia duen diferentzia bat antzematen da  $-(k)i$  morfemaren ondorioz sortzen den konfigurazio sintaktikoan. Izan ere, (7) sortako adizkietako  $-(k)i$  morfemak datibo komunztadura hizkia erakusten du bere ondotik —3. singularreko  $-o$  morfema adibide hauetan guztietan—, eta hori da, hain zuzen,  $-(k)i$  morfematik espero daitekeena, datibo komunztadurarekin batera agertzea. Hirugarren eta azkenik, (7) sortako adizkiak perpaus oso batean sartuz gero, orduan, datibo sintagma bat ageri da perpaus horretan esplizituki, beheko adibideetan bezala, edo isildurik:

- (8) a. Sinesmenari baino gehiago maitasunari datxekio fede mota hori  
(*De re publica edo politikaz*, P. Xarriton, 174)
- b. Adin onari akio (RG A 8)
- c. Autso, Txordon, artz orri eta nik inñes daida (RS 422)<sup>6</sup>
- d. Ene borondatea berraikio zureari (SP *Imit* III 15, 1)<sup>7</sup>

Aldiz,  $-(k)i$  izuna duten aditzetatik batzuek badituzte adizki sintetikoak,<sup>8</sup> baina ez nahitaez, eta inportanteagoa dena,  $-(k)i$  morfemaren agerpenak ez du ondorio bera perpausaren konfigurazioan, batetik,  $-(k)i$  morfemak ez dakarrelako berarekin batera datibo komunztadurarik (9), eta bestetik, sortzen den konfigurazio sintaktikoan, datiboz markatutako sintagmarik ageri ez delako (10).

- (9) a. d-a-u-k-a (eduki)  
DM-DM-eduki-KI-bok-3sgERG
- b. d-ihardu-k-a (iharduki)  
DM-iharduki-KI-bok-3sgERG
- c. d-a-ki (jakin)  
DM-DM-jakin/KI-3sgERG
- (10) a. Zer maila dauka musikak arteetan? (MEIG I)
- b. Orai hamar bekhatuarekin dihardukazu, gero ehunekin iharduki beharko duzu (Ax 84 (V 57))
- c. Dakienak badaki, ez dakienak baleki

Adibide sorta honetan ikus daitekeenez, perpaus hauek guztiak iragankor soilak dira eta ez datibodunak. Ez dirudi, beraz,  $-(k)i$  morfemak, kasu hauetan, ez da-

<sup>6</sup> Adibide hauetatik gehienak Fernández eta Ortiz de Urbinaren (2010) liburutik jaso ditut. Liburu horretako adibide historiko guztiak, bestalde, Mitxelena eta Sarasolaren (1989-2005) *Orotariko Euskal Hiztegitik* (OEH) jaso genituen egile biok eta egungo euskararenak *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) corpusetik (Sarasola, Salaburu, Landa eta Zabaleta 2007).

<sup>7</sup> *Jarraikiven* kasuan sarri askotan ez da  $-(k)i$  morfema ageri, adibidez, *Inurriari arraio* (RS 183) —ikus baita 2 oin-oharra—.  $-(K)i$  isilekoak dira halakoak (Fernández 2012).

<sup>8</sup> (9) sortako adizkiei dagokienez, sarri aurki daitezke forma sintetikoak *eduki* eta *jakinen* kasuan. Aldiz, *ihardukik* ez du gaur egun forma sintetikorik —ikus Lafon (1980 [1944]: 633) eta OEH (IX: 90)—.

tibo sintagmarik gaineratzen duenik perpausera ez datibo horrekiko komunztadurarik dakarrenik adizkira. -(*k*)i hau, beraz, ez dirudi *atxiki* eta abarren -(*k*)i bera denik. Erroaren ostean dator eta aditzaren oinarri morfologikoa osatzen du (berriagoa den erro bat osatuz beharbada), baina ez du datiboarekin lotu daitekeen inolako zeregin sintaktikorik betetzen ez gaur egun ezta beharbada lehenago ere. Horregatik, *eduki* eta *jakin* bezalako aditzekin, badirudi beste -(*k*)i benetako (sintaktiko) baten bitartekaritza behar dela, konfigurazio datibodunak sortzen diren adibide bakanetan. Ondoko ataletan (2.1) eta (2.2) datiboa hautatzen duen -(*k*)i lexikalizatuaz hitz egingo dut, hots, *atxiki* eta abarrenaz, eta -(*k*)i izuneko *eduki* eta *jakinen* konfigurazio datibodunak (4) atalean izango ditut mintzagai.

### 2.1. -(*K*)i, *atxiki*, *jarraiki* eta *ekin*

Gorago esan dudana bezala, partizipioan -(*k*)i lexikalizatuak erakusten duten aditz guztiek forma sintetikoak dituzte, eta oso litekeena da morfema hori partizipiora heldu izana, hain zuzen, inflexiozko -(*k*)i beretik eta forma sintetikoen eskutik —horren inguruko argibideak euskararen historiak emango dizkigu—. Sorburuaren inguruko hipotesiak alde batera utzita, aditz hauek guztiek badute ezaugarri komun garrantzitsu bat lehenago ere aipatu dudana, hots, datibo sintagma bat ezinbestean hautatzen duten aditzak dira. Forma sintetiko datibodunak izatea da horren adierazgarri historikorik garbiena. De Rijkek (2008: 346), *jarraiki*, *jario* eta *atxiki* aipatzen zituen datiboa ezinbestean hautatzen duten aditzen artean, eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2010)<sup>9</sup> lanean, *ekin* bera ere datiboa hautatzen duten aditzen artean sailkatu genuen. Ez dira izatez izaera berekoak, gure liburuan erakutsi genuen bezala, baina datiboari dagokionez, konfigurazio nagusi bera erakusten dute guztiek, hots, datiboduna. Aditz hauek, bestalde, forma analitikoak ere erakusten dituzte:

- (11) a. Bederatzi urte hautan jarraiki zauzkigun irakurtzaileetarik zenbeiti (HU Zez 80)
- b. Bekatu agerrian itendiren guziei itxeki dakiokete eskandaloaren zirkuntantzia (LE-Ir. 153)
- c. Deabruak ere [...] hemendik ekin zitzaioen Eba gure lehenbiziko Ama hari (ES 175)

Adibide hauetako formak analitikoak izateaz gain, inakusatibo datibodunak dira, hots, absolutiboa eta datiboa erakusten dituzte. Jakina, forma sintetikoez ari garela, izatez -(*k*)i morfema bat bakarra dago, gorago aplikatiboa deitu duguna, eta morfema hori sintaktikoki indarrean dago, hau da, zeregin sintaktiko bat du (datiboa gaineratzea eta abar). Alabaina, forma analitikoetan, ez da -(*k*)i morfema bakarra agertzen, bi baino: bat -(*k*)i lexikalizatuak eta bestea aplikatiboa, adibidez, (11a) adibidean *jarraiki* partizipioak eta *zauzkigun* adizkiko -(*k*)i morfema.

<sup>9</sup> Ortiz de Urbina eta bion liburu hartan, aditz hauen guztien azterketa xehea egin genuen eta bertara jotzea gomendatzen diot irakurleari eztabaida hura ezagutu nahi badu. Hona eztabaida haren ildo nagusiak baino ez ditut ekarriko aditzei buruzko xehetasunak liburu hartarako eta biltzen dituen aipamenetarako utziz.

Ez ditut orain aztertuko datibo kasuaren zilegiztapen mekanismo sintaktikoak —lanaren ildo nagusitik aterako baininduke—, baina mekanismo horietatik bat *-(k)i* aplikatiboa izan liteke *jarraiki* edo *atxiki* bezalako aditzak ditugunean eta hortaz, berzko datiboa izango genuke kasu horietan. Bestalde, *ekinen* kasuan, datibo lexikala genuke (Woolford 2006) eta hortaz, aditzak berak zilegiztaturikoa, Fernández eta Ortiz de Urbina (2012) lanean proposatu genuen bezala.

Gainerakoan, aditz hauek bestelako konfigurazioak erakusten dituzte eta alternantzia erakusten dute kasu batean baino gehiagotan, sarri askotan konfigurazio iragankor soilak (ergatibo eta absolutiboa) eta baita inergatibo datibodunak ere (ergatibo eta datiboa) —alternantzia horien inguruko xehetasunetarako, ikus Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) eta Mounole (2011) azterbide historiko baterako—. Iragankor soilak dira ondokoak (12a,b) eta inergatibo datiboduna (12c):

- (12) a. ildo beretik jarraikiko du hemendik aintzina ere (*Herria*, 2003-07-03, 3)  
 b. Datxikagun beti gora eta zut eta oso gure euskalduntasuna (HU *Zez* 80)  
 c. Asko da berbarik, ta ekin dajogun aurrian daukagun oni (Mg *PAb* 56)

Idea bat bakarra da honetan guztian azpimarratu beharrekoa: *-(k)i* lexikalizatua datiboarekin loturik dago. Nolanahi ere den, sintaxiak erabakiko du, dena delako aditzak azkenean erakusten duen konfigurazioa zein izango den.

## 2.2. *-(Ts)i* eta *eutsi*

*Eutsi* aditza aipatu dut dagoeneko *atxiki* eta abarren artean, formarik zaharrenean konfigurazio inakusatibo datiboduna erakusten zuelako (9c), gainerako aditzek bezalaxe.<sup>10</sup> Alabaina, gaur egun, nagusiki aditz inergatibo datiboduna da, hots, ergatibo eta datibo sintagmak erakusten dituena (Etxepare 2003, Fernández eta Ortiz de Urbina 2010), ondoko adibidean bezala.

- (13) Euskal Herriak euskarari eutsiko dio

Antzeko adibide klasiko bi dakartzat ondoren:

- (14) a. Ilko ezpada, euskerak eutsi bear dio Euskalerruari ta euskalduntasunari (Or *SCruz* 8)  
 b. Gu gera iru probintzi, / lengo legerik ez utzi; / oieri firme eutsi, / naiz hanka bana autsi (Xe 411)

Subjektuaren kasua ergatiboa izan zein absolutiboa, *eutsi* aditzak nagusiki (nahiz eta ez bakarrik) datiboz markatutako sintagma bat hautatzen du, (13) eta (14) adibideetan erakusten den bezala. Adibide bakarrari begiratu gero, (13) perpausean, *euskarari eutsi* ageri da (ez *\*euskara eutsi*), eta osagarri horrek datiboa jasotzen du. Hortaz, *eutsi* aditzak bere sarrera lexikoan datiboa hautatzen du eta datiboaren hautaketa *-(ts)i* morfema lexikalizatuari zor zaio, nire ustez. Jakina, morfema hori ez da *conditio sine qua non*, bai baitira, morfema hori izan gabe ere, datiboa hautatzen du-

<sup>10</sup> *Eutsiri* buruzko xehetasunetarako, ikus (OEH VII: 577) eta Fernández eta Ortiz de Urbina (2010: 121-123).



ten beste aditz batzuk, adibidez, *eutsi* aditzetik semantikoki zein sintaktikoki oso gertu dagoen *heldu* aditza. *Helduk* izatez ez du halako morfemarik barnebiltzen, baina *eutsik* bezalaxe datiboa hautatzen du (*Euskal Herriak euskarari helduko dio*). Alabaina, -(*k*)i/-(*ts*)i morfema lexikoki barnebiltzeak dakar dena delako aditzak datiboa hautatzea, eta sintaxiak egingo du gainerakoa, *atxiki* eta abarrei dagokienez, azaldu dudana bezala.

Bestalde, datiboekin oro har zerikusia duen beste arrazoi batengatik ere bada interesgarria *eutsi* aditza. Izan ere, euskal aditz laguntzaileen artean sarri aipatu izan da \**edutsi* aditza mendebaldeko adizki iragankor datibodunei edo nahiago bada ditransitiboetarako dagokienez (*deutsut* eta abarrei dagokienez) —ikus adibidez Euskaltzaindia (1987)—. \**Edusi* izatez forma berreraikia da, baina begi-bistakoa da *eutsi*rekin duen antzekotasuna. Eta *eutsiri* berari ere egotzi izan zaio inoiz (Trask 1995: 288) mendebaldeko adizki horien oinarrian egotea.

Lehenago ere (Fernández 2012, 2014b) esan izan dut ez dudala uste aditz laguntzaile ditransitiborik dagoenik, hots, \*-*i* (Lakarra 2008), \**edutsi* (Euskaltzaindia 1987b) edo \**eradun* (Gómez eta Sainz 1995) bezalakorik, datibo sintagmak gaineratzen dituzten buru sintaktiko beregainak baino. Buru sintaktiko horietako bat da orain artean mintzagai nagusia izan dudana -(*k*)i morfema, bere alomorfo guztiekin batera, hots, -(*ts*)i eta beste. Bada, -(*ts*)i buru hori bera da baina lexikalizaturik, *eutsi* aditzean ere ageri dena eta datibo sintagma hautatzeko bidea ematen diona.

### 2.3. Laburbilduz

Orain arteko lerroetan, -(*k*)i morfema izan dut mintzagai. Morfema hori aditz inflexioan jasotzen da datibo komunztadura ageri denean. Kasu horretan, buru sintaktiko beregain bat da. Buru hori zer ote den eta zein izaera sintaktiko ote duen ebatzea ez da beharbada horren erraza. Helduko gara eztabaida horretara berehalakoan. Bestetik, -(*k*)i morfema hiztegian ere aurki daiteke zenbait aditzetan lexikalizaturik. Horri esker, aditz horiek euren sarrera lexikoan zehaztua dute datiboaren hautaketa, eta ondorioz, aditz horien konfigurazio nagusia datiboduna da. Azkenik, datiboa bera ere badago. Morfologikoki, -*i* morfemarekin burutzen da datiboa euskaraz, eta begi-bistakoa da -*i* morfema horrek -(*k*)i morfemarekin eta batez ere bere burutzapen morfologikoetako batekin, -*irekin* alegia, duen zerikusi estua. Sintaktikoki batasun morfologiko hori zenbateraino den esanguratsua, neronek behintzat momentuz ez dakit. Nolanahi ere, oso litekeena da zorizkoa ez izatea itxura morfologiko bera edo bertsua erakustea. Momentuz esan genezake -*i* hori kasu marka bat dela eta -(*k*)i buru sintaktikoari esker ezartzen dela perpausan. Are gehiago, -(*k*)i buru horren ondorioz datiboz markatutako sintagmaz gain, datibo komunztadura bera ere agertzen da adizki jokatueta. Halaxe sortzen dira ondoko (15) bezalako perpausak euskaraz, zeinetan -(*k*)i buru sintaktikoa ageri den adizki jokatuan, -(*k*)i lexikalizatua *jarraiki* aditzean, eta -*i* datibo kasu marka *Mitxelena*ri sintagman, dagokion datibo komunztadura hizkiarekin batera.

- (15) Mitxelena-ri jarraiki z-a-i-o  
Mixelena.I jarrai.KI DM-DM-izan-KI-3sgDAT

-(*k*)i buru sintaktikoaren inguruko eztabaidarako osagai guztiak ditugu jada eskura.

### 3. *-(k)i* aplikatiboa edo beharbada besterik gabe preposizioa?

Zer da, bada, *-(k)i*? Galdera erantzuten hasi aurretik, iruzkin terminologiko bat egin nahi nuke. Jo dezagun *jarraiki zaio* bezalako aditz forma jokatu batera. Aditz jokatu horretan, bi atal bereizi izan ditugu euskal hizkuntzalaritzan, aditz nagusia (*jarraiki*) eta aditz laguntzailea deitu izan duguna (*zaio*). Alabaina, aditz laguntzailea ez da izatez *zaio* adizkia bera, ez bada adizki horren azpian datzan aditza, zeina *izan* aditza den. Hortik aurrerakoa ez da jada aditz laguntzailea, oso bestelakoak diren gauzak baino. Gauza horien artean, *z-*, *a-*, *i-* eta *-o* daude besteak beste. Eta aditz nagusiarri dagokionez ere, zero morfema genuke, *jarrai-ki* aditz erroa gehi *-ki* lexikalizatuaren ostean. Gauza horiei morfema deritzegu, morfemak direlako azken batean, baina askotariko morfemak dira eta ez dute, gainera, estatus sintaktiko bera. Batzuk denborari dagozkio (*z- < \*d-*<sup>11</sup> morfemari halaxe iritzi izan zaio, adibidez), aspektuari besteak (*jarraiki* oinarriaren osteko zero marka); moduarekin ere badute zerikusia beste batzuek (adizki horretan agerikoa izan ez arren), komuntadurarekin (*-o*, adibidez), eta azkenik, badira, analisiak analisi, lainoan dauden beste morfema batzuk, hala nola, *a-* morfema. Morfema horietako beste bat da *-(k)i*, gure aztergaia. Label beraren azpian horren diferenteak diren osagai morfologiko eta sintaktikoak egoteak pentsarazi beharko liguke aditz laguntzaile deitzen dugun horretan benetan zer dagoen jakiteko modu bakarra dela aditz inflexioa deserarikiz joatea, beharbada, *ñabardurak ñabardura*, Lakaren (1988) aspaldiko lanaren ildotik. Ideia hau ez zaie arrotza egingo sintaxi gaitan lanean diharduten hizkuntzalariei, baina beharbada ez da horren begi-bistakoa beste eremu batzuetako hizkuntzalarientzat. Oso urruti dago lan hau aditz inflexioa benetan zer den argitzetik, baina bide horretan pausu bat gehiago izan nahi luke *-(k)i*ri buruzko hausnarketa honek.<sup>12</sup> Itzul gaitezen, beraz, galdera nagusira.

Sintaxiaren eremuan, galdera nagusi horri beharbada zeharbidez erantzun zaio datiboaren inguruko hausnarketa garatu denean. Izan ere, euskal hizkuntzalaritzan aplikatiboaren hipotesia aldarrikatu eta garatu dute Ormazabal eta Romerok (1998), Albizuk (2001), Arregik (2003) eta Arregi eta Ormazabalek (2003), lan horietan zein euren beste lan batzuetan.<sup>13</sup> Bestalde, Elordietak (2001) bere doktorego tesian iradoki zuen delako morfema hori aplikatiboa zela, eta uste hori jaso du Rezacek (2006) eta baita neronek ere nire azken bi lanetan (Fernández 2012, 2014b) —lan hauetatik bigarrenera jo daiteke xehetasunetarako—. Dena dela, labur-labur edo ingelesez dioten bezala, *intxaur oskol batean*<sup>14</sup> esan genezake morfema aplikatiboei esker gaineratzen direla argumentuak perpausera. Tipologoen bantutza hizkuntzak aipatzen dituzte sarrien aplikatiboez ari direnean, erruandera adibidez (Dryer 1983), baina munduko beste hizkuntza batzuetan ere jasotzen dira, hala nola, austronesiar hizkuntzetan edo hizkuntza uto-aztekarretan. Afrika, mendebaldeko Pazifikoa, Iparraldeko eta Erdial-

<sup>11</sup> Badirudi *z-* hori *d-* morfemaren sabaikaritzeaz erator litekeela historikoki, baldin eta bere ondotik beste *-i* morfema bat badela uste bada (Hualde 2003: 214). Hala balitz, izatez *zaio* bezalako adizkietan, *-i* bikoitzak izango genituzke morfologikoki (Fernández 2014b).

<sup>12</sup> Ikus Ariztimuño (2014) azalpen diakroniko baterako.

<sup>13</sup> Ikus Fernández (2010b) aplikatiboaren hipotesiarekin zerikusia duten lan hauen eta beste batzuen berrikusketa labur baterako.

<sup>14</sup> Ingelesez, *in a nutshell*.

deko Amerika dira aplikatiboen eremu geografiko nagusiak —ikus Polinsky (2013) laburpen tipologiko baterako—.

Aplikatiboek askotariko argumentuak gaineratu ditzakete, adibidez, onuradunak (*Jonentzat*), lokatiboak (*uretan*), instrumentalak (*eskuaz*) eta komitatiboak (*Jonekin*). Perpausera argumentuak gaineratzen direla diodanean esan nahi dudana da printzipioz periferikoak diren osagaiak, hots, sintaxilariok adjunktua deritzegun horiek argumentu estatusa jasotzen dutela perpausera aplikatiboari esker eta osagarriak balira bezalako ezaugarriak jasotzen dituztela. Adibide bat (16) ekarriko dut berehala.

Ildo horretan, -(*k*)i morfema aplikatibo bat delako hipotesia ikuspuntu askotatik da interesgarria. Lehenik eta behin, -(*k*)i iri estatus teorikoa ematen dio behingoz, datibo ikurra eta bestelako deiturek delako morfema identifikatzeko bai, baina hortik aurrera ezer gutxirako balio baitute. Bigarrenik, bere estatus teorikoa aitortuaz batera, unibertso tipologikoan ere kokatzen du -(*k*)i morfema, eta horrek, eragozpenak eragozpen, euskararen izari tipologiko orokorrak zehazten laguntzen du. Hirugarrenik, morfema horrek, aplikatiboak oro har bezala, ezinbestean dakar argumentu berri bat gaineratzea, eta euskaraz -(*k*)i jasotzen duen oinarritzko aditza iragankor zein iragan-gaitza izan daiteke, egitura aplikatiboetan izan daitekeen bezala. Intuitiboki, edozein euskaldunek oinarritzko konfigurazio bati gaineratutako zerbait ikus dezake datiboaz ari denean. Adibidez, *dator* jokaturako aditz iragangaitz bat da, baina horri datiboa gaineratu dakioke, eta orduan *dator* sortu (iragangaitz datiboduna). Eta gauza bera esan genezake *dakar* eta *dakarkio* adizkiez, lehena iragankorra da eta bigarrena lehenengoari datiboa gaineratzearen ondorioz sortu da (iragankor datiboduna edo ditransitiboa). Laugarren eta azkenik, argumentu bat gaineratzeaz aparte, argumentu horren kasua, hots, datiboa zer buru sintaktikok ezartzen duen argitu dezake: -(*k*)i hori izan daiteke, hain zuzen, datiboaren ezarlea perpausera.<sup>15</sup>

Hipotesia onestea zilegi da, beraz, eta ondo lotzen zaio aspaldion sintaxian garatu diren ildo teoriko batzuei, adibidez, Pylkkäneni (2002/2008), gure artera Oihartzabalek (2007) ekarri duen hipotesiari. Sintaxiaren eremuko hipotesi horrek zein beste askok, ñabardurak ñabardura, jasotzen dute gaur egun aplikatiboa.<sup>16</sup> Beraz, hipotesi horri jarraitzen dianak aplikatibo burutzat har lezake -(*k*)i.

Aplikatiboaren hipotesiak, baina, beste hipotesi batera eraman gaitzake modu natural samarrean. Izan ere, aplikatiboak *stricto sensu* dauden hizkuntzetan, sarri asko-

<sup>15</sup> Badira -(*k*)irik gabeko datiboak ere eta horiek dira, hain zuzen ere, datibo komunztadura galera erakusten dutenak. Hizkeretz ari garelara, ipar-ekialdeko hizkeretako kasuan pentsa daiteke: hango hiztunek *Mitxelena*ri *jarraiki da* esan (eta idatz) dezakete (eta *ez nahitaez jarraiki zaio*). Hau bezalako kasuetan, -(*k*)i morfemarik ez da, datibo sintagma bat dagoen arren. Halako datiboak beste kupel bateko ardoa dira eta beste baterako utziko ditut, gaiarekin zerikusia duten arren. Edozelan ere, -(*k*)iz ari garelara, ondo dago azpimarratzea datibo komunztadurarik ez dagoenean -(*k*)irik ere ez dagoela.

<sup>16</sup> Esan gabe doa sintaxian oro har aplikatiboaz hitz egiten denean, aplikatibo horrek soberan gaintzen dituela hizkuntza tipologian ematen zaizkion ezaugarriak, hainbestearino non egitura aplikatibotzat jotzen den tipologo batek inola ere aplikatibotzat joko ez lukeena. Adibidez, tipologoez berebiziko garrantzia ematen diote aplikatiboa morfologikoki agerikoa izateari. Horregatik, ingelesko *John baked a cake to Mary / John baked Mary a cake* 'Jonek Mireni goxopil bat egin zion' perpausera parean, bigarrena ez dute aplikatibotzat hartzen, osagarri bikoitzeko egituratzat baino (Polinsky 2013). Euskararen kasuan, printzipioz, baldin eta -(*k*)i aplikatiboa balitz, orduan morfologikoki agerikoa litzateke, eta ezaugarri hori, behintzat, ondo lotuko litzaike tipologoez aplikatiboari irizten diotenarekin. Nekezago onartuko litzakete tipologoez aplikatibo isilak (Fernández 2012) —ikus orobat 2 eta 7 oin-oharrak—.



tarna bat baino zerbait gehiago; ea ez ote den gaur egun ere sintaktikoki indarrean dagoen zerbait. Ni neu, bederen, baiezkoan nago: -(*k*)*i* ez da iraganeko sintaxiaren aztarna, euskararen egungo sintaxiaren lekuko bizia baino, gorago ere esan dudana bezala. -(*K*)*i* buru sintaktiko bat da, datibo kasua ezartzea dagokio eta berari esker eta bere bitartez jasotzen da baita datibo komunztadura ere. Xehetasun teknikoak argitu behar dira, noski, baina inplementazio teknikoa baino lehenagoko intuizioa garbia da.

Zailagoa da -(*k*)*i* hori gaur egun ere preposizio bat dela ziurtasunez baieztatzea, Traskek berak dioen bezala postposizioak dituen hizkuntza baita euskara, eta halako hizkuntza batean ez baitugu, beraz, preposizio bat espero. Alabaina, Trasken beraren argudioak erabil daitezke gaur egun ere -(*k*)*i* morfemaz ari garela: batetik komunztadura hizkiaren ezkerretara lerratzen dela (eta hortaz, ez da postposizio bat, preposizio bat baino), eta bestetik datiboa gobernatzen duela, preposizioek, hain zuzen, erakusten duten jokabidea, bi alderdietatik begiratuta. Argudio gehiago ere badira.

Lehenik, -(*k*)*i* horrek perpausera gaineratzen dituen datibo sintagmen rol prototipikoak gaztelaniar *a* preposizioa buru duten sintagmek dituzten berberak dira, hots, helburua, onuraduna, iturburua, esperimetzaila eta jabe datiboa beste batzuen artean. Alde horretatik, beharbada, -(*k*)*i* hurbilago egon liteke hizkuntza erromantzeetako preposizio soiletatik bantu hizkuntzetako aplikatiboetatik baino. Gogoan izan, erruanderaren (16) adibidearekin batera esan dudana bezala, onuradunetz gain, lokatiboa, instrumentala eta komitatiboa bezalako rola dituzten adjunktua bihurtzen direla osagarri bantu hizkuntzetan eta, oro har, aplikatiboak dituzten hizkuntzetan. Rol tematiko orokortuena eta arruntena onuraduna izaten da, baina onuraduna ez beste rola ere izan daitezke egitura aplikatiboetan. Onuradunaren ostean, lokatiboa eta instrumentala dira sarrien aurkitzen diren rol tematikoak eta euren ondotik, komitatiboa edo bestelakoak —ikus Polinsky (2013) xehetasunetarako—. <sup>19</sup>

Euskaraz ere, onuraduna izan ohi da -(*k*)*i* gaineratzen duena, eta alde horretatik bat egiten dute -(*k*)*i* eta aplikatiboak, baina lokatibo eta instrumentalaren testigantzarik ez dago ez eta komitatiboarenik. Diferentzia hau esanguratsua izan daiteke edo ez, hipotesia zein den, baina hipotesia gora behera, tipologikoki esanguratsua da rol tematikoaren zehaztapena. Printzipioz, beraz, rol tematikoen ikuspuntutik -(*k*)*i* morfemak gaztelaniar *a* preposizioaren antz handiagoa du aplikatibo batena baino.

Bestalde, rol tematikoez ari garela, euskal hizkera batzuetan jasotzen diren *osagarriaren markapen bereizgarriko* datiboak ere aintzat har genitzake, hots, *zuri ikusi dizut* bezalakoak (Fernández eta Rezac 2010-2016, Odria 2012). Datibo sintagma hauen rol tematiko nagusia gaia da, harrizkeoa dena aplikatiboak gaineratutako osagarri batean. Aldiz, gaztelaniarekiko harremanak arakatu direnean, *a* markapena eta *leísmo* ere aipatu izan dira, eta ezin ukatuzkoak dira euskal datibo hauen eta gaztelaniako *a* markapenaren arteko harreman sintaktikoak. Aplikatiboaren hipotesia nekez erabil daiteke halako datiboetarako, -(*k*)*i* azaldu arren. Preposizioak, ordea, bide zuzenean jar gintzake beharbada.

Bigarrenik, aplikatiboen eremu geografiko nagusietara begira (lehen esan dudana bezala, Afrika, mendebaldeko Pazifikoa, eta Iparraldeko eta Erdialdeko Amerikara begira),

<sup>19</sup> Polinsky (2013) jabea, egoera/gertaera (denbora) eta ordezkia aipatzen ditu.

Polinskyk (2013) dio aplikatiboak erakusten dituzten hizkuntzek kasu markapen morfologiko urria izaten dutela edo kasu morfologikorik eza, aditz morfologia aberatsa izan arren. Horregatik, Eurasian aplikatiborik ia ezin aurkitzea nagusiki kasu morfologia aberatseko hizkuntzak egoteari egotzen dio egileak. Izan ere, azken eremu honetan aplikatiboak dituzten hizkuntzak dira, hain zuzen, kasu morfologikorik batere edo ia batere ez duten hizkuntzak, hala nola, abkhazera edo abazera, Kaukasoko hizkuntzak biak.

Euskara, oso bestela, kasu morfologiko aberatseko hizkuntza da, aditz morfologia aberatsekoa izateaz gain, eta alderdi horretatik, *-(k)i* aplikatiboa balitz, orduan Polinskyk aipatzen duen orokortasun tipologikoan nolabaiteko salbuespena izango litzateke. Euskarari dagokionez, gure eremu geografikoan salbuespen tipologikoa izatera ohiturik gauden arren, kasu honetan beharbada, gauzei okerreko ikuspuntutik begiratzearen ondorioa izan liteke bakardade tipologikoa, hau da, aplikatibotzat jotzearen ondorio, aplikatiboa izan gabe. Besterik da ea hau bezalako eragozpen tipologikoen aplikatiboaren hipotesitik urrunduaz batera, *-(k)i* preposizioa delako hipotesira hurreratuko ote gintuzketen, azken honek ere eragozpen tipologiko handi samarrak sor ditzakeelako, adibidez, preposizio bat izatea hizkuntza postposiziodun batean. Nolanahi ere den, preposizioak egon badaude kasu morfologia aberatseko hizkuntzetan ere, eta ikuspuntu honetatik begira, preposizioaren hipotesia ere defenda liteke.

Hirugarrenik, aplikatiboen sintaxiari begira, dagoeneko eman ditudan argudioetara edo argudio berrietara begira, bada zer argiturik. Alde batetik, gorago dagoeneko esan dudan bezala, tipologikoki aplikatiboak aditz iragankor zein iragangaitzen gainean sortu daitezke, eta alderdi horretatik, euskarak bietarik dauka. Horregatik hitz egin dut testuan zehar inakusatibo datibodunez, inergatibo datibodunez eta iragankor datibodunez, euskaraz ez baitago inongo mugarik horri dagokionez. Alabaina, oinarri iragangaitz baten gainean sortutako aplikatiboak askozaz ere urriagoak dira munduko hizkuntzetan iragankorrak baino, eta batzuetan, inakusatiboekin ezinezkoak (Baker 1998). Horri dagokionez, euskara joera tipologiko nagusi horren kontrakoa litzateke. Preposiziotzat hartzeak, berriz, ez luke inongo murriztapenik izango: aditza iragangaitz edo iragankor izan, preposizioa nonahi ager liteke. Beste alde batetik, baldin eta Bakerren edo euskararako Albizuren ustea zuzena balitz eta egitura aplikatiboak egitura preposiziodunetatik eratorriko balira, orduan ez genuke espero *Jonek Mireni gozopila egin dio bezalakorik, ez bada Jonek Miren gozopila egin dio bezalakoak*, hots, *-i* aplikatiboa edo inkorporatutako preposizioa duen perpaus bat, *-i* marka hori bera izen sintagman agertu gabe.<sup>20</sup> Hala litzateke, baldin eta *-(k)i* aplikatiboa sortzezko *-i* preposizio/postposizio batekin harremanetan balego, bederen.<sup>21</sup> Alabaina, perpaus hori euskaraz ezgramatikala da —ikus Fernández (2014a,b)—. Hor-taz, preposizioaren inkorporazioaren hipotesiak *Mireni* izen sintagmaren *-i* marka nolabait azaldu beharko luke. Gainerakoan, *-(k)i* aplikatiboa *-i* ez den sortzezko beste

<sup>20</sup> Marka hori bera diot eta badakit teiltatuaren hegira hurbiltzen hasia naizena, zeren zeharbidez, *Mireni* izen sintagmaren *-i* morfemari postposizio estatusa aitortzen ari bainaiz, datibo marka bat dela ondo jakin arren eta datibo hori, behintzat, kasu marka deritzadan arren, hots, preposizio/postposizioa ez, kontrakoa baino. Lan honetan, ez dut ildo teoriko hau azkenera arte eramango.

<sup>21</sup> Exteparek eta Oihartzabalek (2009), adibidez, biak jarri dituzte harremanetan, eta *Jonek Mireni gozopila egin du bezalako datibo komunztadurarik gabeko egiturak egitura postposizioduntzat hartu dituzte.*

preposizio/postposizio batekin harremanetan balego, adibidez, onuraduna adierazi ohi duen *-(ren)tzat* postposizioarekin, orduan azaldu beharko litzateke zergatik diruditen beregainak *Jonek Mireni gozopila egin dio* eta *Jonek gozopila egin du Mirenentzat* egiturek. Izatez, euskaraz egitura aplikatiborik ba ote dagoen eztabaida genezake, baina iritzi nagusia da egitura aplikatiboak (izatekotan) eta egitura postposiziodunak beregainak direlako hipotesia, hots, bata bestetik eratoritzen ez direlako ustea (Elordieta 2003, Oihartzabal 2007, Fernández eta Ortiz de Urbina 2010 vs. Albizu 2001, Arregi 2003 eta Arregi eta Ormazabal 2003). *-(K)i* preposizio hutsa delako hipotesiak hau guztia argitzen lagunduko lukeen ez dakit. Ikusi beharra dago.

Laugarren eta azkenik, lan honetako mintzagai nagusira itzuliz, erraz jarri liteke harremanetan *atxiki* eta abarretan agertzen den *-(k)i* lexikalizatua, gaztelaniaz (eta beste hizkuntza askotan) semantikoki antzekoak diren aditzetan, hots, *adherirse a, seguir a* eta abarretan ere hiztegitik datozen preposizioekin (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010, 2012). Kasu hauetan, *-(k)i* lexikalizatua aplikatiboa dela baieztatzeak ez du funts handirik. Preposiziotzat jotzeak, berriz, argitu lezake beharbada aditz hauen jokabidea eta beste hizkuntza askotako aditzekiko antzekotasun formalak bera ere.

Hortaz, xehetasunez arakatu beharra dago *-(k)i* preposizio bat delako hipotesia. Hipotesi hori ziur aski ezin daiteke behar bezala garatu, harik eta aditz inflexioaren inguruko hipotesi oso bat izan arte, baina zerbaiten abiapuntua izan liteke. Edozelan ere, hipotesi horrek ere galdera berriak erantzun beharko litzuzke, horretan dudarik ez da. Berehalakoena, beharbada, ea nolatan preposizio bat postposizioduna den hizkuntza batean. Edo gaztelaniarekiko konparazioan, zergatik dauden *a* preposiziodun sintagma eta dagozkien klitiko datiboak, baina klitiko horren ezkerretara *-(k)i* balizko preposizioaren parekorik ez ordea, eta abar.

#### 4. *-(K)i, eduki, jakin* eta (mendebaldeko) konfigurazio datibodunak

*-(K)i* morfema erakusten duten aditz guztiek ez dute *-(k)i* aplikatibo/preposizioa lexikalizaturik. Badira erroaren ostean, oinarria osatuz *-(k)i* morfema erakusten duten aditzak, baina izatez *-(k)i* horrek ez du zerikusirik datiboak gaineratzen dituen *-(k)i* sintaktikoarekin, eta ondorioz, datibo komunztadurari sarbidea ematen dion morfema berekin. Schuchardt (1972 [1893]) eta Lafon (1980 [1944]) izan dira, besteak beste, ñabardura esanguratsu horretaz ohartu direnak. Neronek oinarri morfologikoan *-(k)i* morfema erakusten duten aditzetatik bi baino ez ditut aztertuko, hots, *eduki* eta *jakin*.

Aditz hauekin nagusiki konfigurazio iragankor soilak baino ez daude eta ez datibodunak —ikus adibidez Euskaltzaindia (1987: 47) eta (1993: 205, 215) *jakin* aditzarako edo Hualde (2003: 235) *eduki* zein *jakin* aditzetarako—. Horrek, jakina, ez du esan nahi inoiz konfigurazio datibodunik erakutsi ez duenik ezta gaur egun ere erakusten ez duenik, berehala ikusiko dugun bezala.

Oinarriko *-(k)i* morfemak *-(k)i* lexikalizatuaren itxura bera du. Adibidez, *etsi* aditzak bezalaxe, zeinak *-(k)i* lexikala duen, *-u-* erroaren gainean eraikitzen dira bai *eduki* bai *ukan*, eta ikuspuntu morfologiko huts batetik begira, aditz hauetan *u+ki* eta *u+k* segidak ditugu, hurrenez hurren, *etsi* aditzean *u+tsi* dugun bezala. *-K* ere *-(k)i* morfemaren burutzapen morfologikoetako bat da, (1) atalean esan dudana bezala —ikus Fernández (2012) eta bertako aipamenak—. Burutzapenak burutzapen, hiru aditzetan *izan* iragankorraren edo nahiago bada, \**edumen* *-u-* erroa jasotzen da batetik

eta bestetik *-(k)i* morfema. Alabaina, *eutsi* aditzean ez bezala, *-(k)i* ez da aplikatibo/ preposizioa *eduki* zein *ukan* aditzetan. Kasu honetan, erroaren osteko oinarri morfologikoari dagokio morfema, eta ez du ez datiborik gaineratzen ez datibo komunztadura hizkirik sartzen. Bi aditz hauek iragankorrak dira nagusiki eta horregatik, ergatibo/absolutibo argumentuekin ageri dira, dagozkien komunztadura hizkiekin batera.

Ostean, esanahiari dagokionez, bai *eduki* bai *ukan* jabetza adierazteko erabiltzen dira hizkera batzuetan, *izan* iragankorraren ordez (17b): *eduki* mendebaldeko hizkeretan (Hualde 2003: 221, Arregi 2004, de Rijk 2008: 307) eta *ukan* ipar-ekialdekoetan (Hualde 2003: 221, Euskaltzaindia 1987: 122-123) —(17c) eta (17d), hurrenez hurren—. Kontuan izan *\*edun* deitu izan dugunak, salbuespenak salbuespen, ez duela forma jokatugetarikerik.<sup>22</sup> *Eduki* zein *ukan* aditzek forma jokatu sintetiko berberetatik sortuak diruditen bi aditz lexikoren forma jokatugetabeak dira, eta hortaz, ez dugu espero jokabide sintetiko bat bera izatea besterik (17a).

- (17) a. (Nik) seme bat daukat  
 b. (Nik) seme bat izan/izango dut  
 c. (Nik) seme bat eduki/edukiko dut  
 d. (Nik) seme bat ukan/ukanen dut

Forma sintetiko bakarrak bere aldetik, *izan* iragankorra, *eduki* edo *ukan* erakusten ditu forma jokatugetararako, ez baitago euskaraz *\*seme bat edun/edungo dut* bezalakorik.

Azkenik, *jakin* aditza dugu. *Jakin* aditzak ere itxura guztiaren arabera, oinarriko *-ki* morfema bera erakusten du, *eduki* aditzak bezalaxe. *Jakin* ere iragankorra da, eta hortaz, *dakit* bezalako adizki batean, *-kiren* ostean datorren komunztadura hizkia ergatiboarena da eta ez datiboarena.

Gatozen orain aditz hauen konfigurazio datibodunetara, bakanak izan arren, bai baitira aditz hauen konfigurazio datibodunen testigantza idatziak. Testigantza horietatik batzuk *jakin* aditzarekin aurki daitezke, OEHk (X: 46) jasotzen dituen hauek adibidez:

- (18) a. Baldin eta nere proximoak ez **badiakit** niri zer juizio [...] edo ausentzia gaizto egin diodan beraren kontra (OA 170)  
 b. Iñok **eztakiola** seiña egin dabela [urlia neskatilak] (CrIc 95)  
 c. Ziur **jakin deusat** gordetan dabela sarri bere gosariya (Mg PAb 106)  
 d. Saulek au ere **jakin zion**, eta eskua ezarri naiez, egunoro zerraikion (Lard 172)  
 e. **Jakin baneutsan** nor zan, beragaz neu batu? Ez beintzat, bai lenago mutil zar igartu (AB AmE 273)  
 f. Ezta arazotu ere ezpaitzera egiten zuk **iaikin diozuna** esaten (Zait Plat 137)

<sup>22</sup> *\*Edunen* forma jokatugetararako, euskararen historiari jo beharra dago —ikus OEH (VI: 386) eta Mounole (2011: 25 oin-oharra)—. Esate baterako: *Daquianac bildur ytuten daquique giçon yzayte* (RS 375) ‘Quien sabe tener miedo sabrá ser hombre’. *Ytuten* (*eduten*) forma, euskara batuko eta erdialdeko hizkeretako *izaten* partizipio inperfektiboko formari dagokio —ikus orobat Irigoien (1971: 469), Mitxelena (1977b: 270) eta Gómez eta Sainz (1995: 240)—.



Adibide hauetara begira, zenbait alderdi formal nabarmendu genitzake. Batetik, *jakinek* forma sintetiko datibodunak ditu, hots, *badiakit* (18a) eta (*d*)*akiola* (18b). Forma batean zein bestean, morfologikoki *-ki* gisa burutzen den morfema, *-k(i)* erroaren eta *-k(i)* aplikatibo/preposizioaren laburdura izan daiteke, haplologia bitartez.<sup>23</sup> Bestetik, forma analitikoak ere erakusten ditu, hots, *jakin deusat* (18c), *jakin zion* (18d), *jakin neutsan* (18e), *iakin diozu* (18f). Idazleei eta hizkera eremura begira, Moguelen *Peru Abarkakoa* da (18c) eta baita Azkuek (1969: 510) harriduraz jasotzen duen *Euskereari ezakio inok arrezkero etorrerarik* ere. Baldin eta *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiania* Moguelena ere bada, orduan (18b) ere Moguelen adibidea da. Hortaz, OEHko testigantzei, Azkuek jasotakoa gaineratuz gero, zazpi agerraldietatik hiru idazle berarenak dira eta bizkaierazko formak. Arrese Beitiarena ere (18e) hizkera berekoa da. Otxoa de Arinena (18a), Lardizabalena (18d) eta Zaitegirena (18f), berriz, gipuzkerakoak.<sup>24</sup>

Bestalde, gramatika lanetara joz gero, Azkueren aipamenaz gain, Añibarrok (1969: 72) *jakin* aditzeko hainbat forma sintetiko jasotzen ditu, itxuraz behintzat, inongo mugarik ez dutenak datibo komunztadura jasotzen duten pertsonen dagokienez (singularreko lehena *daquidazu*, singularreko hirugarrena *badaquiot*, singularreko bigarrena *badaquizut*, eta abar). Orainaldiko zein iraganeko formak jasotzen ditu. Añibarrok flexioa bera dakar, baina ez adibiderik ez inongo idazleren aipamenik. Adibiderik ez ekartzean, nekez jakin daiteke zein izaerako datiboak diren halako formek ezkutatzen dituztenak. Euskaltzaindia (1979) lanean, Txillardegik paratutako aditz taulei dagokienez ere egiten da *jakin* datibodunaren aipamena, *Refranes y Sentenciaseko* ondoko adibide hau emanetz: *Ire auçoac eztequian gacha ona da* (RS 431). Horiexek dira gramatika lan nagusietan aurki daitezkeen apurrak, asko ere ez.

Izan badiren arren, are urriagoak dirudite *eduki* datibodunaren testigantza idatziek, gramatiketako eta hiztegietakoa aipamenetara begira beti ere.<sup>25</sup> Lehenik eta behin, OEHk (VI: 383-385), *jakin* aditzarekin ez bezala, ez dakar adibide sorta bereziturik *edukiren* forma datibodunetarako. Hala ere, han eta hemen adibide bat edo beste atera daitezke adibide gutzien artetik:

- (19) a. Beotibar, Beotibar, hik **diadutak**<sup>26</sup> Martin de Oibar (Cantar de Beotibar)  
b. Respetoa **edugiten deustenak** (Cap 44)

Dena dela, OEH hiztegi bat da, ez gramatika bat, eta hori izan daiteke besterik gabe, forma horiek ez jasotzeko arrazoia. Bestalde, gramatiketan ere ahalegin handia egin beharra dago, handik eta hemendik forma hauen berri jasotzeko. Añibarro (1969: 54) salbuespena da berriro ere, *jakin* aditzarekin bezalaxe, askotariko forma sintektikoak (zein analitikoak) ematen baititu baita *eduki* aditzerako ere (*daucadazu*, *daucatzut*, *daucagutzu*, *daucatzuet* eta abar).

<sup>23</sup> *Badiakit* forman, bestalde, adizkiaren bigarren guneko *-i* morfema ere badago, gaineratzen den datiboarekin eta bere komunztadurarekin zerikusia duena, dudarik gabe —ikus Fernández (2014b)—.

<sup>24</sup> OEHk (X: 48) ‘informer, faire savoir’ zentzuko *jakin* bat ere jasotzen du, datiboduna dena: *jakin diot etzela ontsa* ‘je lui ai fait dire que ce n’était pas bien’ Lh. Datibo sintagma hau zehar osagarri peto bat da.

<sup>25</sup> Bilaketa sistematiko baten beharra dago, ezer baieztatu aurretik. Bitartean, hemen diodana oso behin-behinean hartu beharra dago.

<sup>26</sup> *Diadutak* formarekin batera, parentesi artean *me lo tienes* itzulpena dakar OEHk (VI: 384).

Lafittek (1978 [1944]: 319), bere aldetik, dio autore klasikoetan bazirela *badaukot* ‘je le lui tiens’ edo *bazaukon* ‘il le lui tenait’ bezalako formak —ez du idazleen xehetasunik ematen—, nahiz eta bere garaian jada erabiltzen ez ziren.

Lafonek (1980 [1944]: 204), ostean, Etxeparerengandik jasotzen duen *dadutac* adizkiaren interpretazioan ez datoz bat aditu guztiak, eta interpretazioaren arabera forma datiboduna da edo *ez*. Etxeparek *Amore gogorraren despita* XII. kantako 37. bertsoan halaxe dio: *Iauna guerthuz hic daducat porfidia handia. Daducat* forma hori bietara zuzendu dute filologoek, *hic* subjektua esplizituki izaki, okerretara idatzitako forma izan behar delako; batetik *dadutac* gisa —Lafonek berak Schuchardti jarraituz—, eta bestetik *daducac* gisa (Altuna 1980: 323). Bigarren formarekin ageri da Altunaren edizioan (Etxepare 1995 [1545]: 112). *Dadutac* forma datiboduna da; *daducac*, berriz, forma datibogabea eta hortaz, kontuan hartu ezin dena, Altuna zuzen egonez gero, behintzat.

Beharbada, Ithurri (1979 [1895]: 289) da gramatikari guztien artean daturik-eta zehatzenak ematen dituen<sup>27</sup> eta datu horiei segika, Axularren<sup>28</sup> *Gerora* eta Pouvreauren *Philoteara* jo dut eta bertan jaso ditudan adibideetatik ia guztiak egitura berbera erakusten dute: *amorioa eduki*.

- (20) a. Aita batek bere semeari **diadukon** amorioa, delarik handia eta naturala, guztiarekin ere, amorio desordenatuak hain flakutzen eta kordokatzen du amorio natural haur, non batzuetan erroetarik erauzten eta atheratzen baitu (Ax 201 (V 234))
- b. zeren gure buruari **diadukogun** amorioak bethi erraiten derauku gure atsekabeak gure atsekabeak handiago direla diren baino (SP *Phil* 110)

Erabilerak, beraz, oso mugatua dirudi, zeren *amodioa dio* formaren kideko *diaduko* bezalakoak dira nagusi eta ia aukera bakarrak, askotariko forma sintetikoak jasotzen diren arren (*diaduko*, *diadukogu*, *diadukozu*, *diadukote*).<sup>29</sup> Bestalde, *amodioa eduki* edo bestelakorik eduki, egitura bera da (21a) adibidekoa ere: datiboarekin markatutako sintagma zehar osagarri arrunt samar bat da. Ostera, egitura horretatik apur bat aldentzen den adibidea da (21b): datiboa ez da zehar osagarri arrunt bat, beharbada erreferentzia puntu bat adierazten duen sintagma bat baino, *berarekiko*-edo gisa interpreta litekeena.

- (21) a. baldin barrenean nehoi herratik, hegigoarik, gorroturik edo borondate gaixtorik **badiadukozu** (Ax 192 (V 223))
- b. zeren ezta, soberaniak gainez eragin eztiatiaionik, ezta bere neurria baiño gehiago **dadukaionik** (Ax 65 (V 77))

<sup>27</sup> «Règle. Même règle qu’au nota de la p. 248, sauf que le thème verbal est ADUKA au présent et EDUKA aux autres temps. Ex: *Daduko* Axular il le lui tient. (Harizm, 136; Ax, 336; e. 103; SP *Phil* 209, 269, disent *Diaduko*); *Zedukon* il le lui tenait: (Ax, 489, *Ziadukon*): *Dadukeo* il peut te lui tenir (Ax, 119 dit *Dadukaio*).» (Ithurri 1979 [1895]: 289).

<sup>28</sup> Axularren aipamena Euskaltzaindiak (1979: 113) ere egiten du.

<sup>29</sup> Goian dauden (20) eta (21) adibideez gain, hauexek dira bi lanetako agerraldi guztiak ustez: *Nola gizonak emazteari diadukon amorioa, bere egitez baita, natural* (...) (Ax 220 (V 251)); (...) zeren maite baitzuen, amorio baitziadukon (Ax 278 (V 315)); (...) azturari eta nagitasunari diadukoten amorioa humiltasunaren aitzakiaz estali eta bernizatu (SP *Phil* 118); *Ordea nola nihork bere buruari diadukon amudioa, amudioa bortitza, nahasgarria eta khexatua baita* (...) (SP *Phil* 147); *Iankoari diadukon amorioa gatik* (SP *Phil* 240); *Zer utzi duzu bada honerainokoan Iankoari diadukozun amorioa gatik?* (SP *Phil* 267).

Dena dela, hau lagin txiki bat baino ez da, eta arretaz aztertu beharreko gaia da bai bi autore hauetan bai beste autore klasiko batzuetan, egongo baitira ziur aski beste nonbait halako formen testigantzak, baina momentuz esan dezakedana da ez dirudiela zorizkoa denik gramatiketan halako formen aipamenik ia ez jasotzea. Gabezia horrek zerikusi estua izan dezake besterik gabe formak urriak izatearekin. Bestalde, halako formak jasotzen dituen ereduazko egilea Axular bada, orduan ikusi dugunez, adizkion erabilera guztiz murrizta da, ia predikatze bidean doan *amodioa eduki* segidara mugatzen baita. Azterketa sakonago batek bakarrik argitu lezake hau guztia.

Gauzak oso bestelakoak dira herri hizkeretara jotzen denean, Gamindek (2007) erakutsi duen bezala. Izan ere, mendebaldeko herri hizkera batzuetan, bai baitira *jakin* zein *edukiren* forma sintetiko datibodunak —*edukirako*, ikus adibidez Arretxe (1994: 261) Basauriko euskaraz, eta *jakin* zein *eduki* aditzetarako, Uriarte (2004: 97, 98) Fruizeko euskaraz—. <sup>30</sup>

Gamindek (2007), orotara, hamasei adibide ematen ditu bere zenbait lanetatik jasotakoak. Hamasei adibide horietatik bederatzi, *entzute dekotzet* ‘entzuna diet’/ *iminte dekotzu* ‘ipinia diozu’ ereduak dira (22). <sup>31</sup>

(22) Nik entzute **dekotzet**, e, gurean amari te, ui! (Derio, Gaminde et al. 2005)

Ez dut halako datiboen ezta geroago aipatuko ditudanen azterketa zehatzik egiteko asmorik oraingo honetan. Alabaina, zertzelada bat edo beste aipa liteke. Adibidez, datibo hauek izatez ez dagozkio perpaus nagusiarri, adizkira begira kontrakoa irudi lezakeen arren. Intuitiboki erraz uler daiteke diodana. (22) adibidean, *nik zerbait daukat*, horixe da perpaus nagusia. Perpaus horrek, baina, badu bere barruan partizipiozko egitura bat, hots, *amari entzunda*. Bada, mendeko egitura horretatik ateratzen da datibo sintagma eta goiko perpaus nagusira igotzen da. Horren ondorioz jasotzen da adizki nagusian datibo komunztadura [*amari [entzunda] diot*]. Izatez, datiboak gora egin duen egitura horrek badu kideko beste egitura bat igoerarik ez duena: *amari entzunda daukat* (edo *amari entzuna dut*, *amari entzuna dioten ordez*) [[*amari entzunda*] *daukat*]. Datibo komunztaduraz, oro har, hitz egin beharrean, klitikoek hitz egingo bagenu, aldeak alde, hizkuntza erromantzeetan gertatzen den *klitikoaren igoera* (ingelesez, *clitic climbing*) <sup>32</sup> dirudien egitura bat da Gamindek jaso duen hau.

<sup>30</sup> Lan hauetan bietan, inflexioa bera ikus daiteke aditz tauletan, baina ez adibiderik.

<sup>31</sup> (*Orrek iminte dekotzu* (Derio, Gaminde et al. 2005); (*Nik amari entzunte dekotzet* (Berango, Gaminde 2006); (*Nik entzute dekotzet... (gurean amari te)* (Derio, Gaminde et al. 2005); *Entzunde dekotzat (aitxeri)* (Arrieta, Gaminde 1999); (*Nire gixonan aitteri entzute dekotzet* (Lezama, Gaminde 2006); (*Nik aitteri*) *esetute dekotzet* (Jatabe, Gaminde 2001); (*Seme gasteai au beko pisuau...*) *emonta dekotzu* (Derio, Gaminde et al. 2005); *entzunte dekotzet (aitteri tte oneri)* (Berango, Gaminde 2006); (*Niri konteta dekostesu* (Derio, Gaminde et al. 2005). Bada zalantzatikoa izan litekeen kasu bat: *Gure ama defunteari dekotzet nik atxine gastañe sopea ite seuela* (Derio, Gaminde et al. 2005). Hamargarren adibide honetan, ez da partizipioa esplizituki agertzen, baina esango nuke beste adibideak bezalakoxea dela, partizipioa isiltzen duen arren.

<sup>32</sup> *Quiero besarte / Te quiero besar* bezalakoez ari naiz klitikoaren igoera aipatzen dudanean (frantsesez ez da halakorik). *Te* klitikoa lehen egituran infinitibozko egituraren barruan dago; bigarrean, berriaz, klitiko horrek gora egin du egituran eta aditz nagusiarri gaineratu zaio. Bigarren egitura hau da klitikoaren igoera erakusten duena, eta aztergai dugun egiturarekin, aldeak alde, konpara daitekeena.

Bestalde, gainerako adibideetatik bostek datibo etiko baten itxura dute, eta kasu bakan hauetan beharbada etikoak izan litezke (Jaeggli 1982, Borer eta Grodzinsky 1986, Jouitteau eta Rezac 2007 Fernández 2010a beste batzuen artean):

- (23) a. Orrek belarriko miñe **dekotzu**, Mari (Mungia, Gaminde 1999)  
 b. Orrek **estekotzue** erremediorik (Mungia, Gaminde 1999)  
 c. Orre pai oingoa pere **dakakituzes** (Mungia, Gaminde 1999)  
 d. Erresue ba ta, ni(k) **takitzut** (Mungia, Gaminde 1999)

Adibide hauek guztiak herri bakarrean jaso ditu Gamindek, hiztun berarenak izan litezke eta hortaz, idiolektalak, edo beharbada ez. Ez dakit. Hori bai, *eduki* zein *jakin* biak ageri dira, ustez izaera bereko datiboekin. Etikoak direla esatea, askotxo esatea da horren lagin txikiarekin. Printzipioz ez dirudi datibo argumentalak direnik, hau da, ez dira aditzak adierazten duen gertaeran edo dena delakon inolako partaidetza duten argumentuak. *Horrek belarriko mina dauka* badiogu (23a), argumentuak *horrek* eta *belarriko mina* dira, hortik aurrerako zerbait ager daiteke egitura, eta *de facto* datibo komunztadura marka agertzen da, baina marka horrek ez du argumenturik adierazten. Argumentuak ez diren datiboak izatea datibo etikoaren aldeko argudioa izan liteke. Bestalde, inongo kasutan ez da ageri datibo sintagma espliziturik, hots, *zurizuei*, eta printzipioz ez dugu espero inongo datibo sintagma esplizitua agertzerik, datiboa argumentala ez bada. Honek ere etikoaren aldera eraman gaitzake. Horretaz gain, bigarren pertsonakoak dira guztiak salbuespenik gabe, eta etikoaren inguruko literaturan erabateko adostasunik ez dagoen arren, nagusiki (ez bakarrik) datibo etikoak bigarren pertsona singularrarekin lotu izan dira, hots, mintzakidearekin. Mintzakide hori da, beraz, datibo komunztadura adierazten duena, eta mintzakidearekiko hurbiltasunez erabiltzen dela dirudi, etikoarekin ohi den bezala.

Zer esanik ez da datibo etikoak ez dagozkiola hizkera jaso bati. Estandarrean, beraz, ez ditugu espero, Gaminderen iritzia gorabehera. Horren adierazgarria da, besteak beste, halakorik printzipioz ez aurkitzea testigantza idatzi apurretan (nahiz eta berriro ere diodan ikerketa sakonago bat beharrezkoa den), eta bai, ordea, herri hizkeretatik jasotako ahozko agerraldietan.

Bi datibo egitura hauek gain, adibide bat bakarra dago Gaminderen lanean, Axular eta Pouvreurenak bezalakoxea dena:

- (24) Marti kakatzu oiñ artien billur ixte natzu, bañe oiñ, emetik aurrera **estakitzut** (Zaldibar, Gaminde 1999)

(*Norbaiti*) *beldur eduki* jasotzen da adibide honetan, lehenago *amodioa eduki* jaso dugun bezala. Zehar osagarria da, goiko kasuetan bezala, datiboarekin markatutako argumentua. Kasu nolabait prototipikoa ere badago, beraz, Gamindek emandako datuetan dialektalki zein pragmatikoki askozaz ere markatuagoak diren kasu periferikoekin batera.

Azkenik, Fernández eta Rezacek (2016) Dimako euskararako jasotako ondokoak bezalako adibideak ere izan genitzake kontuan:

- (25) a. Ondoan **edukiko dostezu** beti  
 b. Abertzalea **edukiko dostezu** beti  
 c. Abertzalea **dekostezu**

Gogoan izan Dimako euskaraz, ezinbestekoa dela osagarriaren markapen bereizgarria (*ikus* *nauzuren* ordez *ikus* *dostezu*) lehen eta bigarren pertsonekin. Horretatik datoz, hain zuzen, azken adibide hauek. Hirurak dira predikazio iragankorreko egiturak, eta hiruretan *eduki* ageri da dagokion inflexioarekin, *izan* iragankorraren (\**edunen*) ordez (*ondoan izango nauzu betilabertzalea izango nauzu betilabertzalea nauzu*).

Honaino helduta sor daitekeen galdera da ea nondik ote datorren *eduki* eta *jakin* aditzen forma sintetiko zein analitikoetan han eta hemen ageri zaizkigun konfigurazio datibodunak. Datiboa bi kasu hauetan ezin zaie egotzi, *atxiki* eta abarretako *-(k)i* lexikalizatuari, *eduki* eta *jakin* aditzak, dagoeneko esan eta erakutsi dudana bezala, nagusiki aditz iragankor datibogabeak direlako. Beraz, datiboa eta datibo komunztadura ohiko *-(k)i* aplikatibo/preposizio bati egotzi behar zaio. Morfologikoki, ekialdeko hizkeretako adibide klasikoetan, *diaduko* edo *diadukogu* bezalakoetan, adibidez, *eduki* aditzak berez oinarri morfologikoan duen *-(k)i* izunari *-(k)i* aplikatibo/preposizioa gaineraturik, forma laburtu bat sortzen da, haplologiaren bitartez, hau da, ez da *-(k)i* morfema birritan agertzen, behin baino, eta morfologikoki *-k* morfema soil batez burutzen da, gainera. Modu berean interpretatu behar dira, nire ustez, *badiakit* edo *eztakio* (18a,b): *-(k)i* izuna dago aditzaren oinarrian eta horri *-(k)i* aplikatibo/preposizioa gaineratzen zaio sintaxian. Alabaina, forma morfologikoak *-(k)i* bakarria erakusten du, haplologiari esker.

Azkenik, morfologikoki bestela burutzen bada ere, mendebaldeko hizkeretako forma guztiak, aldeak alde, oinarriko *-(k)i* morfemari *-ts* burutzapen morfologikoa duen aplikatibo/preposizioa gaineratzearen ondorioz sortzen dira: *dekotzut*, *dakitzut* dira horren adibideak.

## 5. Ondorioak

Lan honetan erakutsi dudanez, *-(k)i* aplikatibo/preposizioaz gain, bada beste *-(k)i* bat, zenbait aditzetako partizipioan ageri dena eta aditz horien hautaketa lexikoan datiboari sarrera ematen diona. Aditz horien konfigurazio nagusiak datibodunak dira eta hala erakusten dute euren forma sintetikoetan. *-(K)i* lexikalizatu horretaz gain, bada beste bat izuna dena, ez baitu inongo zerikusirik datibo kasuarekin, itxuraz hala irudi lezakeen arren. *-(K)i* hori *eduki* edo *jakin* bezalako aditzetan jasotzen da. Aditz hauek iragankorrak dira nagusiki, baina beste edozein aditzi bezala, *-(k)i* aplikatibo/preposizioa gaineratuz gero, konfigurazio datibodunetan ere ager daitezke, zenbait lekukotasun historikok ez ezik, gaur egungo mendebaldeko hizkera batzuek erakusten duten bezala.

## Aipamenak

- Albizu, Pablo, 2001, «Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarriko zenbait datu». In Beatriz Fernández eta Pablo Albizu (arg.), *Kasu eta komunztaduraren gainean. On case and agreement*. Bilbo: UPV/EHU, 49-69.
- Altuna, Patxi, 1980, «Etxeparerenak nahas mahas», *Euskera* XXVI (2. aldia), 323-327.
- Añibarro, Pedro Antonio de, 1969, *Gramática Bascongada para el uso, y alivio de Párrocos, y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos, y Navarros*. (= ASJU III).
- Ariztimuño, Borja, 2014, «Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar». In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra eta Céline Mounole (arg.),

- 3<sup>rd</sup> Conference of the Luis Michelena Chair - Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra - III Congreso de la Cátedra Luis Michelena («Koldo Mitxelena» Katedraren Argitalpenak, 5). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua, 41-60.
- Arregi, Eurídice, 2003, «On Dative Alternations in Basque». Eskuizkribua, UPV/EHU.
- eta Javier Ormazabal, 2003, «Aditz ditransitiboen barne-egitura». In Jose Mari Makazaga eta Bernard Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*. Iker-14 (I). Bilbo: Euskaltzaindia, 119-136.
- Arregi, Karlos, 2004, «The *havel/be* alternation in Basque». Eskuizkribua, Urbana-Champaign: University of Illinois.
- Arretxe, Jon, 1994, *Basauriko euskararen azterketa linguistikoa*. Basauri: Basauriko Udala.
- Axular, Pedro de, 1643, *Gero*. Bordel. [Klasikoen gordailua, Susa <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AxularGero.htm>]
- Azkue, Resurrección María, 1969, *Morfología vasca*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Baker, Mark, 1988, *Incorporation: A theory of grammatical function changing*. Chicago: University of Chicago Press.
- Borer, Hagit eta Yosef Grodzinsky, 1986, «Syntactic Cliticization and Lexical Cliticization: The Case of Hebrew Dative Clitics». In Hagit Borer (arg.), *Syntax and Semantics* 19. New York: Academic Press, 175-215.
- De Rijk, Rudolf. P.G., 2008, *Standard Basque. A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Dryer, Matthew S., «Indirect objects in Kinyarwanda revisited». In David M. Perlmutter (arg.), *Studies in Relational Grammar* 1. Chicago: The University of Chicago Press, 129-140.
- Elordieta, Arantzazu, 2001, *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- Etxepare, Bernard, 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*. [Berrarg. 1995. Bilbo: Euskaltzaindia].
- Etxepare, Ricardo, 2003, «Valency and argument structure in the Basque Verb». In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin / New York: Mouton de Gruyter, 363-425.
- eta Beñat Oihartzabal, 2009, «Bi datibo egitura ifar-ekialdeko hizkeretan». *Lapurdum* XIII, 145-158.
- Euskaltzaindia (Txillardeggi), 1979, *Euskal Aditz Batua*. Donostia: Euskaltzaindia.
- , 1987, *Euskal gramatika. Lehen urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 1993, *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, Beatriz, 2010a, «Goi datiboak eta goragokoak euskaraz: jabe datiboak eta datibo hunkituak vs. datibo etikoak». *Gogoa* 10 (1 eta 2), 1-20.
- , 2010b, «Goi- eta behe-datiboak eta Datibo komunztaduraren murriztapena: ipar-ekialdeko hizkerak eta euskara estandarra». In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina. 'Julio Urkixo' Euskal Filologi Mintegiaren Urtekariaren Gehigarriak (ASJU)*, LXIX. UPV/EHU, 37-63.
- , 2012, «-(K)i eta -ra», *ASJU* 46, 257-270.
- , 2014a, «-i edo adikzio baten anatomia». *Gogoa*. Bilbo: UPV/EHU, 27-71.
- , 2014b, «-(K)i». In Beatriz Fernández eta Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU, 213-228.
- eta Jon Ortiz de Urbina, 2010, *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

- eta —, 2012, «Dative (first) complements in Basque». In Ernestina Carrilho eta Beatriz Fernández (arg.), *Syntactic microvariation in Westmost European Languages. Journal of Portuguese Linguistics (Special Issue)*, 11-1. Edições Colibri - Universidade de Lisboa, 83-98.
- eta Milan Rezac, 2010, «Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea: *ari nai di-yot* eta *kanta egin nazu* bidegurutzean». In Beatriz Fernandez, Pablo Albizu eta Ricardo Etxepare (arg.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai. ASJUren Gehigarriak*, LII. UPV/EHU, 113-149.
- eta —, 2016, «Differential Object Marking in Basque varieties». In Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the Grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 93-137.
- Gaminde, Iñaki, 1999, *Zaldibar berbarik berba*. Zaldibarko Udala.
- , 2001, *Arrieta berbarik Berba*. Bilbo: Arrietako Udala.
- , 2001, *Jatabe berbarik Berba*. Jatabeko Udala.
- , 2001, *Mungia berbarik Berba*. Mungiako Udala.
- , 2004, *Berango berbarik Berba*. Bilbo: Berangoko Udala.
- , 2006, *Lezama berbarik berba*. Lezama: Zorritzketan Kultura Alkartea.
- , 2007, «Datibodun adizkiak *jakin* eta *eduki* aditzekin Bizkaian». *Euskalingua* 10. Mendelbalde Kultura Alkartea, 53-64.
- , Atotz Goikoetxea, Ziortza Sanz, Oihana Astobieta, Esther Elgoibar eta Jon Gaminde, 2005, *Derioztarren Euskara*. Derio: Derioko Udala.
- Gómez, Ricardo eta Koldo Sainz, 1995, «On the origin of the finite forms of the Basque verb». In José Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra eta Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 235-274.
- Hualde, José Ignacio, 2003, «Verbs. Finite forms». In José Ignacio Hualde eta Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter, 205-246.
- Irigoién, Alfonso, 1971, «Estudio de un texto arcaico del vizcaíno antiguo». *Iª Semana de Antropología Vasca*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 455-474.
- Ithurri, Abbé, 1895, *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. [Berrarg. 1979. Donostia: Lur].
- Jaeggli, Osvaldo A., 1986, «Three issues in the theory of clitics: case, doubled NPs and extraction». In Hagit Borer (arg.), *Syntax and Semantics* 19. New York: Academic Press, 15-42.
- Jouitteau, Mélanie eta Milan Rezac, 2007, «The French ethical dative, 13 syntactic tests», *Bucharest Working Papers in Linguistics* IX (1), 97-108.
- Lafitte, Pierre, 1944, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. [Berrarg. 1978. Donostia: Elkar].
- Lafon, René, 1944, *Le système du verbe basque au XVIIe siècle*, Bordele. [Berrarg. 1980. Donostia: Elkar].
- , 1961, «Sur les forms verbales basques qui contiennent un indice datif», *BSL* 56-1, 139-162. [Berrarg. 1999. In Jean Haritschelhar eta Piarres Xarriton (arg.), *Vasconiana. IKER* 11. Bilbo: Euskaltzaindia, 411-430].
- Laka, Itziar, 1988, «Configurational heads in inflectional morphology: The structure of the inflected forms in Basque», *ASJU* XXII-2: 343-365.
- Lakarra, Joseba A., 2008, «Aitzineuskararen gramatizarantz (malkar eta osinetan zehar)». In Xabier Artiagoitia eta Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*. Bilbo: UPV/EHU, 451-490.

- Mitxelena, Koldo, 1981, «Lengua común y dialectos vascos». In Joseba A. Lakarra eta Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), 2011, *Luis Michelena. Obras Completas. VII. Fonética y Fonología, Morfosintaxis y Dialectología*, 517-543.
- Mitxelena, Koldo eta Ibon Sarasola, 1989-2005, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mounole, Céline, 2011, *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique*. Doktore tesia, UPV/EHU eta Michel de Montaigne - Bordeaux III.
- Odria, Ane, 2012, «What lies behind differential object marking: a survey in Basque dialects». Master Tesia, UPV/EHU.
- Oihartzabal, Beñat, 2007, *Basque Ditransitives*. Eskuizkribua, IKER, CNRS.
- Ormazabal, Javier eta Juan Romero, 1998, «On the syntactic nature of the *me-lui* and the Person-Case Constraint». *ASJU* XXXII-2, 415-433.
- Polinsky, Maria, 2013, «Applicative constructions». In Matthew S. Dyer eta Martin Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. [<http://wals.info/chapter/109>]
- Pouvreau, Silvain, 1664, *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea*. Paris. [Klasikoan gordailua, Susa <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/P/PouvreauFilotea.htm>]
- Pylkkänen, Lisa, 2002/2008, *Introducing arguments*. Cambridge (Mass.): The MIT Press.
- Sarasola, Ibon, Pello Salaburu, Josu Landa eta Josu Zabaleta, 2007, *Ereduzko prosa gaur*. [<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>]
- Schuchardt, Hugo, 1972 [1893], «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco», *BAP* 28, 2-3, 217-337.
- Rezac, Milan, 2006, *Basque morphosyntax*. Eskuizkribua, University of Nantes/CNRS.
- Trask, Robert L., 1981, «Basque Verbal Morphology». In *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak. IKER 1*. Bilbao: Euskaltzaindia, 285-304.
- Trask, Robert. L., 1995, «On the history of the non-finite forms in Basque». In José Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra eta Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 207-234.
- , 1997, *The history of Basque*. Londres: Routledge.
- Uriarte, Jon, 2004, *Fruiztarrak berbetan*. Fruizko Udala.
- Woolford, Ellen, 2006, «Lexical case, inherent case, and argument structure», *Linguistic Inquiry* 37 (1), 111-130.

Beatriz Fernández Fernández  
 Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila  
 Letren Fakultatea, UPV/EHU  
 Unibertsitateko ibilbidea 5  
 01006 Vitoria-Gasteiz, Araba  
 Euskal Herria  
 Tel: 945013654  
[beatriz.fernandezf@ehu.eus](mailto:beatriz.fernandezf@ehu.eus)